

## **2002ko EKAINAREN 17ko BILKURA NAGUSIA**

Lizartzan, bi mila eta biko ekainaren hamazazpian, gaueko bederatziak direnean, Alkate-Ordea: Ana Ederra Irurzun; Udalkideak: Antton Balerdi Garmendia, Nerea Altuna Zubeldia, Lurdes Altuna Arritegi, Lontxo Goikoetxeaundia Martinez, Xabier Balerdi Urdampilleta; Idazkaria: Ana Jesus Zabala Garmendia eta beste hainbat herritar, Biltzar Nagusian bildu dira, gai hauek erabili direlarik:

### **1.- AURREKO AKTEN ONARPENA**

Alkate-Ordeak, aurreko saioen aktei ezer esatekorik badagoen galdetu du, eta inork ezer esatekorik ez duenez, aho batez onartu dira.

### **2.- 2002 URTEKO AURREKONTU OROKORRAREN KREDITU ALDAKETA**

Lizartzako Udal honen 2002ko Aurrekontuaren barnean Kreditu-Gaikuntzen erregimenaren bidez izapidetzen den Kreditu-Aldaketarako espedientearen berri eman ondoren.

Idazkari-Kontuhartzaileak jaulkitako txostena irakurri ondoren, zeinak adierazten baitu aipatutako espedientea aplikagarria zaion indarreko araudiari egokitzen zaiola eta, hortaz, bere aldeko txostena ematen baitu.

Onespena proposamena formulatzen duen Ogasun Batzordeak emandako aldeko irizpena irakurririk.

ERABAKI DA:

- 1.- Kreditu-Gaikuntzen erregimenaren bidez egin beharreko Kreditu-Aldaketarako espedientea onestea, 19.891,92,- eurotako zenbatekoaz, espedientearekin batera jasotako egoera-orriskari ageri den kontzeptu eta partiden xehekapen berarekin.

2.- Egintza hau bestelako tramiterik gabe irmo eta exekutiboa denez gero, bidezkoa da onetsitako Kreditu-Aldaketa Fondoan Kontuhartzailtza Zerbitzuek Kontabilitatean berehalako ondorioekin isla dezaten.

### **2001 EKITALDIKO KONTUEN AZTERKETA ETA ONARPENA**

Lehendakari jaunak hartu du hitza eta 2001 ekitaldiko Aurrekontuaren eta Ondarearen Administrazioaren kontuak aztertzeari ekingo zaiola esan du, guztiak ere jendaurreko erakustaldian jarriak eta Kontuen Batzorde Bereziak aztertutakoak, Batzorde honek dagokion espedientean agertzen diren erregelamenduzko txostenak igorri dituelarik.

Idazkariak txosten horien irakurketa azkarra egin ondoren, eta kontu horiek erregelamenduzko ereduak betetzen dituztela eta behar besteko frogagiriak dituztela egiaztatuta, horiei buruzko informazio zabala eskuratu, eta bertaratutako jaun-andreek eskatutako azalpen guztiei erantzuna eman zaielarik, aho batez onartu egin dira.

Bertara etorritako jaun-andreei ohartarazi zaie 781/1986 Legegintza Errege Dekretuaren 460-5 artikuluari jarraiki, nolana ere, Kontu Epaitegiaren kanpo fiskalizazioaren menpe jarri behar direla eta aipatu artikulua horren aplikazioan, kontuak onartzeagatiko erabakiak, akats eta oztopoen zuzenketak hala nola okerrak konpontzeko prozedurak, betearazleak izango direla.

### **3.- GIZARTE GUNEA. LEHEN ERABILERA KO BAIMENA**

Lizartzako Udalak, Txirrita Gudariaren Plaza, 7-9an kokatu den, Lizartzako Gizarte Gunean Taberna-Jatetxearen Lehen Erabilpen baimena eskatu du.

Udaleko Teknikoek aldeko txostenak luzatu dituzte.

TRLS.ko 242.2 eta RDU.ko 1-10 artikuluek diotenaren arabera, PROPOSATZEN DA:

Udal honek dituen konpetentzien barnean, eta beste Erakundeei dagozkienaren kalterik gabe, eskatutako lehen erabilerako baimena ematea.

Proposamena aztertu eta eztabaidatu ondoren, aho batez onartua izan da.

#### **4.- GIZARTE GUNEA. IGOKA ESPEDIENTEA**

Lizartzako Udalak, Txirrita Gudariaren Plaza, 7-9an kokatuko den, Gizarte Gunea egiteko baimena eta iharduera horri ekiteko jarraitutako espedientea ikusiz gero.

Kontutan hartuaz, bere tramitazioa, aplikagarri diren legeen arabera egokitu dela, espedientean, Udal Teknikariek eta Osakidetzak luzatutako txostenak daudela, eta interesatuei dei egin zaiela, jendaurrean jarritako iragarkien bidez.

Kontutan hartuaz, eskatutako aktibitatea, Gipuzkoako Foru Aldundiako Nekazaritza eta Ingurumen Departamentuak, GIZARTE GUNEAN TABERNA-JATETXEA bezala, klasifikatu duela.

1961eko Azaroaren 30eko IGOKA Erregelamenduak eta ebazpen osagarriek diotenaren arabera, ERABAKI DA:

1.- LIZARTZAKO UDALA baimentzea, herri honetako Txirrita Gudariaren Plaza, 7-9an kokatuko den, Gizarte Gunean Taberna-Jatetxea egiteko, Gipuzkoako Foru Aldundiako Nekazaritza eta Ingurumen Departamentuak ezarritako neurri zuzentzaileak bete behar direlarik.

A) BALDINTZAK

- 1.- Aldeko Ikuskaritza Akta lortu aurretik ezin izango da, aktibitatea martxan jarri.
- 2.- Akta hori lortu ahal izateko, Lizartzako Udala, Ikuskaritza bisita egitea eskatuko du.

1998ko otsailaren 27ko 3/1998ko Legearen, Euskal Herriko Ingurugiroa Babesteko Lege Orokorraren 61.4 artikuluan ezarritakoari jarraiki, jarduera ezin izango da martxan jarri, Irekitzeko Lizentzia eskuratu arte.

Aipatutako Irekitze Lizentzia eskuratzeko derrigorrezkoa da eskumena duen funtzionari tekniko batek dagokion egiazpenerako bisitaldia egitea.

#### **5.- A-4. LURREN BANAKETA**

Lizartzako Arau Subsidiarioek hiri-lurzoru gisa sailkatutako eta 4. Area izeneko planeamendu-eremua zehazten dutela; aipatu areak 3.643,77 m<sup>2</sup>ko lur-azalera dauka, eta bertan, gehienez ere, babes ofizialeko 26 etxebizitza eraiki daitezke. Desjabetza de bere hirigintza-kudeaketarako ezarri den iharduketa-sistema.

Lizartzako Udalak, eraikuntza horien gauzatze eraginkorra ahalbidetzeko asmoz, eta eraikuntzak egingo direneko lur guztiak jaso eta Lizartzako Udalaren alde Jabetzaren Erregistroan inskribatu eta gero, lursailen deskripzio berria onartu behar da; lursail horiek udalerrian indarrean dagoen planeamendu orokorrean xedatutako erabakien arabera eman dira. Jarraian aipatuko ditugu:

4. Area deritzona kudeatzeko emandako finken zerrenda guztiak ere udalerraren titulartasuna dute, tituluak izanik, honako hauek osatzen dute:

.- Deskribapena

Lizartzako Udal Planeamenduko Arau Subsidiarioetako 4. Arean kokatuko, HIRU HILA SEIEHUN ETA BERROGEITA HIRU metro eta

HIRUROGEITA HAMAHAZPI dezimetro karratu (3.643,77 m<sup>2</sup>) dituen HIRI LURSAILA. Mugak: Ifarraldetik: Goiz Argi Etxea eta Araxes Ibaia; Ekialdetik: Herri Bidea; Hegoaldetik: Katarain, Bidaurre eta CN-130; eta Mendebaldetik: Herri Bidea eta Laxaroneko Zubia.

.- Jabea: LIZARTZAKO UDALA

.- Titulua eta Inskripzioa:

4. Arean kokatu eta salerosketen bidez, Lizartzako Udalak erosi eta finka bakar batetan elkartutako lurak. Tolosako Jabego Erroldaritzan bere inskribapenerako aurkeztuak:

Tomoa:	1929
Liburua:	Lizartzako 29.a
Orria:	62
Finka:	1378
Inskripz.	1.a

.- Zamak: Ez du zamarik.

.- Emandako Azalera: 3.643,77 m<sup>2</sup> dituen finka osoa.

4. Areari dagokion Lizartzako Arau Subsidiarioetan aurrikusten diren ordenazio eta ebazpenekin ados, erregistroko inskribapenerako sortzen diren partzelen konfigurazio eta deskribapena, era honetan gelditzen da.

### **ERAIKIGARRI DIREN PARTZELAK**

#### **1. Partzela:**

.- Deskribapena

420 m<sup>2</sup>.ko azalera duen, P-1 bezala identifikatu eta, eraikigarria den bizitegirako partzela. Partzela honetan, oinan gehieneko 420 m<sup>2</sup>.ko okupazioa izango duen, babes ofizialeko, batutako familiabakarreko 7 etxebizitza eraiki ahal izango dira; perfila, behe oina eta bi oin altuak, etxebizitza, garaje eta trasteroetan banatua

Mugak: Ifarraldetik: pasealeku publikoa; Hegoaldetik: Herri bidea; Ekialdetik: oinezkoentzat pasealeku publikoa eta Mendebaldetik: oinezkoentzat pasealeku publikoa.

Hirigintza aldetik, finka hau, partzela minimoa eta zatiezina da. Eraikitzen den unetik, jabetza horizontaleko erregimenean banatu ahal izango da.

.- Zortasunak

Barneko Herri bidetik, ibilgailuentzako garajetako sarrerako, bi metroko zabalera izango duten, zazpi sarrera izango dira.

.- Hirigintzazko Arauak

Partzela hau, Lizartzako Udal Planeamenduko Arau Subsidiarioetako Araudian aurreikuten den hirigintzako erregimenari lotuta gelditzen da.

.- Zamak

Zamatik libre.

.- Adjudikazioa

Finka guzti honen gaineko jabaria, LIZARTZAKO UDALARI adjudikatzen zaio.

**2. Partzela:**

.- Deskribapena

420 m<sup>2</sup>.ko azalera duen, P-2 bezala identifikatu eta, eraikigarria den bizitegirako partzela. Partzela honetan, oinan gehieneko 420 m<sup>2</sup>.ko okupazioa izango duen, babes ofizialeko, batutako familiabakarreko 7 etxebizitza eraiki ahal izango dira; perfila, behe oina eta bi oin altuak, etxebizitza, garaje eta trasteroetan banatua

Mugak: Ifarraldetik: pasealeku publikoa; Hegoaldetik: Herri bidea; Ekialdetik: oinezkoentzat pasealeku publikoa eta Mendebaldetik: oinezkoentzat pasealeku publikoa.

Hirigintza aldetik, finka hau, partzela minimoa eta zatiezina da. Eraikitzen den unetik, jabetza horizontaleko erregimenean banatu ahal izango da.

.- Zortasunak

Barneko Herri bidetik, ibilgailuentzako garajetako sarrerako, bi metroko zabalera izango duten, zazpi sarrera izango dira.

.- Hirigintzazko Arauak

Partzela hau, Lizartzako Udal Planeamenduko Arau Subsidiarioetako Araudian aurreikusten den hirigintzako erregimenari lotuta gelditzen da.

.- Zamak

Zamatik libre.

.- Adjudikazioa

Finka guzti honen gaineko jabaria, LIZARTZAKO UDALARI adjudikatzen zaio.

### **3. Partzela:**

#### **.- Deskribapena**

420 m<sup>2</sup>.ko azalera duen, P-3 bezala identifikatu eta, eraikigarria den bizitegirako partzela. Partzela honetan, oinan gehieneko 420 m<sup>2</sup>.ko okupazioa izango duen, babes ofizialeko, etxebizitza kolektiboen edifikagarri diren bi bloke eraiki ahal izango dira; perfila: sotoa, merkataritzako behe oina, altueran bi oin eta estalki azpia, garaje, lokal komertzialak, eta gehieneko 12 etxebizitzetan banatua. Behe oina, Ifarmendebaldetik, 3 metroko zabalera atzeratuko da, 28 metroko luzeran, eriakuntza alineazioko altueraren arabera, erabilera publikoko zortasuna izango duen portxea osatuaz.

Mugak: Ifarraldetik: Herri Bidea; Hegoaldetik: CN-130; Ekialdetik: Herri Bidea eta Mendebaldetik: oinezkoentzat pasealeku publikoa.

Hirigintza aldetik, finka hau, partzela minimoa eta zatiezina da. Eraikitzen den unetik, bi azpipartzeletan banatu ahal izango da, B-1 eta B-2, bi ataritan banatuaz, sotorako igarotze eta sarbiderako tokatzen diren zortasunak kontutan hartuaz. Baita ere, aipatutako azpipartzela hoiek, jabetza horizontaleko erregimenean banatu ahal izango dira.

#### **.- Zortasunak**

Ifarmendebaldetik eta behe oinan, 3 metroko zabalera eta 28 metroko luzera izango duen, erabilera publikoko portxe baten zortasuna izango du. Hegomendebaldeko mugan, Garajetako sarrerako zortasuna edukiko du.

#### **.- Hirigintzazko Arauak**

Partzela hau, Lizartzako Udal Planeamenduko Arau Subsidiarioetako Araudian aurreikuten den hirigintzako erregimenari lotuta gelditzen da.

#### **.- Zamak**



Zamatik libre.

.- Adjudikazioa

Finka guzti honen gaineko jabaria, LIZARTZAKO UDALARI adjudikatzen zaio.

Lizartzako Udalak, eraikuntza horien gauzatze eraginkorra ahalbidetzeko asmoz, eta eraikuntzak egingo direneko lur guztiak jaso eta Lizartzako Udalaren alde Jabetzaren Erregistroan inskribatu eta gero, lursailen deskripzio berria, aho batez onartu dira.

## **6.- BATASUNAREN ILEGALIZAZIOA**

Azken hilabeteetan, maiz agertzen ari da Espainiako Gobernuaren bozeramaileen ahotik, Batasuna legez kanpo uzteko asmoa. Ez dira berriak gure herrian horrelako urrats errepresiboak; gerra zikinari, torturei, heriotza zigorra extrajudizialari, atxilotetei eta kartzelaratzeari ezezik, oldartze sasijudizialari ere bidea eman zaio azkenaldi honetan, legez mozorrotutako errepresioa, alegia.

Estatu espainiarraren izaera errepresibo eta faxista, askotan ageri da eta guztiok, gure herrietan, gerturik jabetzeko aukera izan dugu, tamalez. Herriaren nahiari, askatasuna eta bakearen nahiari, Estatuek gogor erantzun diote historikoki, errepresio politikoaren bidez, Euskal Herriaren hitza eta erabakia ekidin ahal izateko, azken finean, demokrazioari beldurra diotelako.

Errepresioa etengabekoa eta iraunkorra izanik, batzuetan areagotu egiten da, hain zuzen, Estatuek beraien jarrera kolokan ikusten dutenean edota Euskal Herriak bere eskubide politikoak ozenki aldarrikatzen dituenean, aldaketa politikotik hurbil egonez. Horrelaxe, Franco hil zorian zegoela, Estatu espainiarrak errepresio gordinari ekin zion, euskal Herrian salbuespen-egoera ezarri. Hil eta gero, sortutako erregimen birmoldatu honetan, lege eta Tribunal

berezi ugari ezagutu ditugu, soilik euskal herritarron borrokari aurre egiteko asmoz.

Oraingo honetan, Euskal Herriari inposatutako marko juridiko-politikoa agortu denean, gehiagorik ematen ez duenean eta gizartearen gehiengo zabal batek argi eta garbi autodeterminazioaren alde jotzen duenean, Espainia, gure eskubide zibil eta politikoak aitortu beharrean, berriro ere, jauzi errepresibo bat garatzen ari da. Euskal gizarte erakundeak, elkarteak eta erakunde politiko ezberdinak legez kanpo utziaz eta euren kideak kartzelaratzearekin batera, 200.000 euskal herritarron ordezkari politiko ezabatu nahi dute, Batasunaren ilegalizazioaren bitartez. Tamainako eraso, berriro ere, Euskal Herri osoari zuzentzen zaio eta oraindik ere, gizartearen haustura bortitz hau eraginez, egon daitezkeen ondorio instituzional, politiko eta sozialak, neurtezinak dira.

Batasuna ilegalizatzeko, Espainiako Gobernuaren egitasmo honen aurrean, gizartearen kezka eta larritasuna egunero azaltzen ari dira, eragile ezberdinek jarrera plazaratuz. Gizarteak ere, beraz, euskal erakundeei eta ordezkari politikoei jarrera agertzea eskatzen die. Honenbestez, Biltzar Nagusiari, erabaki hauek hartzea proposatu zaio:

- 1.- Indar politiko guztiek Euskal Herriko bizitza politiko, sozial eta kulturean berdintasun baldintzetan parte hartzeko eskubidea eta beharra dutela. Beraz, aukera politikoen aniztasuna errespetatu behar da.
- 2.- Ez Batasuna ezta inolako indar politikorik ere, ezin direla ilegalizatuak eta jarduera politikotik alboratuak izan, Euskal Herriaren demokrazia eta euskal herritarron eskubidea zibil eta politikoak lortzeari ekiten diotenak ezabatuz, alderdi batzuen jokoaren moldaketa dela medio.
- 3.- Euskal Herriko gainerako antolakunde politikoekin berdintasunean parekatuz, Batasunaren partehartze politiko osoa ziurtatu ahal izateko, beharrezko ekintza guztiak gauza ditzan.

4.- Mozio proposamen hau, ondoko pertsoneri helaraziko zaie: Botere Judizialaren Independentziarako Errelatoreari (Nazio Batuen Giza-Eskubideen Batzordeako); Adierazpen Askatasunerako Errelatoreari (Nazio Batuen Giza-Eskubideen Batzordekoa); eta Europako Giza-Eskubideen Epaimahaiari.

Batasunaren ilegalizazioaren aurka, aurkeztutako mozioa, aztertu eta eztabaidatu ondoren, aho batez onartua izan da.

## **7.- EUDEL-en ADIERAZPENA**

Demokrazia eta hiritarrak inon estu-estuki elkarrekin bizi badira, Udaletxeetan gertatzen da halakoa; horren gain, Udaletxeetan ere hiritarren parte hartzeko bidezko eskaera beste inon baino zuzenago hartzen da aintzat. Beraz, Udaletxeak sistema demokratikoaren eraikin osoa sostengatzen duten oinarrizko zutabeak dira. Udaletxeen demokraziaren kalitatea degradatuz gero, sistema osoak horren eragina jasoko du.

Alkate eta Zinegotziek, udalerrri bakoitzaren herri-borondatearen legezko ordezkariak izateaz gain, guztion onuraren alde jarritako hiritarren balore zintzoenak adierazten dituzte. Haien hiritarren ongizatearen alde aritzeko kasurik gehienetan sakrifizio handiak egin behar izan dituzte, bai pertsona, bai familia bai lanbide aldetik. Zentzu horretan, gizalege altruista eta herriaren eta herrirako gobernuaren den demokraziaren balorerik jatorrenetarikoen adierazgarriak dira.

Hori dela eta, udal arloko eguneroko kezkez gaindi, hiritar askoren egoera larriak, horien artean ETaren ekintza terroristek mehatxatu, kolpatu eta eraildako geure kideenak –batez ere Alderdi Sozialista eta Alderdi Popularrekoei dagokienez-, eta ideia politiko emokratikoen defentsarako adierazpen-askatasunak jasandak oerasoek, demokrazia eta askatasunaren aldeko erantzun irmo eta solidarioa eskatzen digute, baita euskal gizartearen aniztasunarekiko begirunearen aldekoa ere.

Errealitate honetaz jabetuz, joan den otsaiaren 22an Ajuria-Enean izandako Alderdi Politiko eta Erakunde Publikoen ordezkarien arteko bileran, udal esparruan demokrazia eta askatasunaren defentsarako konpromisoen garapena geure erakunde honen esku utzi izan zen, baita aniztasunarekiko begirune eta mehatxatutako pertsonetako defentsa eta elkartasun mailako ekimenak ere, ahalik eta inplikazio politiko eta sozial handiena bilatuz. Hori guztia horretarako propio sortutako Segurtasun-Batzordeak- bertan Alderdi Politikoen ere parte hartuz- bultzatzen diharduen erabakiekin koordinaturik.

Une honetako larritasunaz jabeturik, geure Udaletxe guztietan udal demokraziarekin hartutako konpromisoa finkotasunez berriztu behar dugulakoan gaude, gauza bera eginez Alkate, Zinegotzi eta mehatxatutako pertonen askatasun, osotasun eta segurtasunei nahiz terrorismoaren biktimak guztiei dagokienez.

Hori dela eta, adierazpen hau izenpetu dugun euskal alderdi politiko eta udal-ordezkariek jenduarrean berretsi nahi dugu nor bere erantzukizun-eremuan lan egingo dugula Demokrazia eta Askatasuna eta euskal gizartearen aniztasuna errespetatu eta defendarazteko. Egin ere, ondoko printzipioen arabera egingo dugu.

## **PRINTZIPIOAK**

- 1.- Gizon-emakumeen oinarrizko eskubideak errespetatu eta defendatzea da herritarren eta Herrien antolamendu eta bizikidetzarako oinarria.
- 2.- Politikoki justifikatu ezin diren, bai eta etikoki gaitzesgarriak ere, pertsonen hilketak helburu duten indarkeria ekintzak.
- 3.- Giza-Eskubideen Deklarazio Unibertsala berretsi egiten dugu, Bizitzarako Eskubidea horien arteko aurrenekoa izanik, eskubide hori agertu ezean ezin baita bestelakorik gauzatu. Adierazpen horri eutsiz, ezin da inor torturatu, txarto tratatu, iraindu edo mehatxatu, ez eta jazarri edo eraso ere, dituen

ideiak direla-eta edo ideia horiek jendaurrean demokratikoki ordezkatu eta defendatzearren.

Horregatik, bizitza, askatasun eta demokraziaren aurka-eta hortaz, giza-eskubide guztien aurka- doazen ETAREN ekitza terroristak gaitzetsi egiten ditugu.

- 4.- Euskal gizartean dagoen ideia, egitasmo eta sentimendu aniztasuna aberasgarri da kultura, politika nahiz gizartearentzat. Horrenbestez, babestu eta errespetatu egin behar da, eta, horretarako, gizarte hori osatzen duten kide guztien askatasuna defendatu behar da, beti ere, bortxarik gabe adieraz ditzaten bere asmo pertsonal eta politikoak, bidezkoak guztiak ere.
- 5.- Gizarte demokratiko batean, egitasmoa politiko demokratiko oro defendatu, garatu eta, hala badagokio, gauzatu behar da, baldin eta herritarren gehiengoaren babesa badauka. Beti ere, errespetatu egin behar da, baldintza berdintasunean, aukera politiko desberdinen ordezkaritza askea eta defentsa eraginkorra. Xede horrekin, Zuzenbide Estatu bateko arau demokratikoen eta politikak dituzten mekanismoak baino ez dira erabiliko borondate kolektiboa eratzeko.
- 6.- Aniztasun politiko eraginkortasunez eta modu kontsekuentean errespetatzea, beraz, nahitaezkoa da, gure herrietan guztiok elkarrekik biziko bagara.

## **KONPROMISOAK**

Printzipio horietan oinarrituta, alderdi politikoek eta euskal alkate eta zinegotziek gure borondatea adiearazten dugu:

- 1.- Demokrazia eta askatasuna defendatzeko eta euskal gizartearen aniztasuna errespetatzeko udal akordioa onartzea. Helburu hori lortzeko behar diren neurri ekonomiko, arau-emaile, politiko eta sozialak jasoko ditu akordioak,

eta, era berean, euskal gizartea era aktiboan inplikatu du akordioaren garapenean.

Udal akordio horretan ondoko konpromisoak jasoko ditugu:

- Bizitzarako eskubidea defendatzeak duela lehentasuna berrestea, horixe baita bizikidetzarako oinarritzko printzipio.
- Gizon-emakume guztien oinarritzko eskubideak errespetatu eta errespetaraztea.
- Zuzenbide Estatua –demokraziaren oinarritzko elementua den aldetik- eta beronen erakudneak defendatzea, horiek baitira herritarren borondate demokratikoaren isla.
- Egitasmo politikoak lortzeko, indarkeria bortxa gisa erabiltzeari beren bergin uko egiten dieten egitasmo politiko guztien bidezkontasuna eta legezkontasun demokratikoa defendatzea.
- ETari exijitzea errespetu dezan euskal gizartearen borondatea eta behin betiko utz dezan indarkeria.
- Elkartasun aktibo eta aintzatespen etiko, sozial eta materialeko ekimenak garatu, indarkeria, intolerantzia eta giza eskubideen nahiz eskubide zibiko eta politikoen haustea jasan dutenen eta jasaten dutenen alde. Are gehiago, baita judizialki ere, Korporazio gisa, norbaitek mota honetako edozein estortsio jasatzen duenean.
- Herritar guztien eskubideak zaindu eta defendatzea eraso, urratu edo baldintzatu nahi dutzutenen aurrean, eratutako udal gobernuaren ezaugarriak edo udalerrri bakoitzean dauden indarrak gorabehera.
- Herritarren parte-hartze eta ordezkaritza politikorako eskubideak askatasunez erabiltzea udal esparruan, beti ere, aukera politiko bidezko eta

demokratiko guztien aniztasuna errespetatuz eta elkartasunez beraien lan publikoa bermatuz, izan daitezkeen legez kanpoko ekintza, mehatxu, larderia edo erasoen aurrean.

- 2.- Toki esparruan demokrazia eta askatasunaren aldeko printzipioak eta aniztasunaren eta giza eskubideen errespeturako printzipioak zabalitzea, politika eta gizartearen inplikazio ahalik eta handiena bilatuz ezarpen praktikoa eraginkortasunez gauzatzeko, udalez udal eta herriz herri.

Ondorio horietarako, udalek demokrazia eta askatasuna defendatzeko eta euskal gizartearen aniztasuna errespetatzeko toki foroa sustatuko dute. Foroa zabalik egongo da herritarrek eta elkarteek parte har dezaten, eta aldizka bilduko da herri bakoitzeko sentsibilitate sozial eta politiko desberdinen arteko elkarrizketa eta topaketa gunea sustatzeko, sentsibilitate horiek honako adierazpen zibikoan azaldutako printzipio eta konpromisoekin eraginkortasunez konprometituak direlarik.

- Ideia demokratikoak direla-eta mehatxatuta edo errepresaliaturik dauden pertsona edo erkaundeei babes sozial eta instituzionala emate ahalbidetuko duten ekimenak garatuko ditu.
- Demokrazia eta askatasuna eta herrian dauden aukera politikoen aniztasunarekiko begirunea errespetaraziko du.

- 3.- Edozein akordio politiko lortzekotan, demokrazia eta askatasuna defendatzeko eta euskal gizartearen aniztasuna errespetatzeko adierazpen zibikoan azaltzen diren printzipio eta konpromisoak modu eraginkorrean onartu eta defendatzea, ezinbesteko oinarri politikoa delakoan gaude.

Eudel-ek aurkeztutako, Demokrazia eta askatasuna defendatzeko eta euskal gizartearen aniztasuna errespetatzeko adierazpen zibikoa, aztertu eta eztabaidatu ondoren, aho batez, ez onartzea erabaki da.

## **8.- INEM-PEOIEN KONTRATAZIOA**

Inem eta Udalen arteko, 2002 urteko hitzarmenaren arabera, Lizartzari, 2 peoi kontratatzeke dirulaguntza jaso du.

Hori dela eta, herrian agiria jarrita egon da, eta epe horretan, hiru pertsonak izena eman dute, lan hoiak burutzeko:

XANTI LASA  
MIKEL ALTUNA  
GORKA ITURRALDE

Burutu behar diren lanak kontutan hartuta, komenigarri erizten da, igeltsaritz lanetan esperientzia eskatzea.

Horren arabera, eta bakoitzaren lan-esperientzia aztertu ondoren, proposatzen da, bi pertsona hauek kontratatzea:

XANTI LASA  
MIKEL ALTUNA

Proposamena aztertu eta eztabaidatu ondoren, aho batez onartua izan da.

## **9.- UDAL LANGILEEN ZERRENDAREN ALDAKETA**

2002ko martxoaren 11an eginiko Bilkura Nagusian, 2002 urteari zegokion Langileen zerrenda onartu zen.

Ondoren, Etxez Etxeko Laguntzaile lanetan aritzen zen, Sagrario Luloaga Andreak, guztizko elbarritasun iraunkorra jaso du.

Hori dela eta, lanpostu hori behin behinekoa denez, Lanpostu Zerrendatik kentzea proposatu da, honela geldituz:



<b>IZENA</b>	<b>Lanp. Kop.</b>	<b>T.6/89 L. 43. Art.</b>	<b>Egoera</b>	<b>Ohar.</b>
<b>IZAERA NAZIONALEKO FUNTZIONARIAK</b> <b>Idazkari-Kontuhartzaitzaren Azpimaila</b> IDAZKARI-KONTUHARTZAILEA	1	B	J	70%
<b>ADMINISTRAZIO OROKORRAREN MAILA</b> <b>Laguntzaileen Azpimaila</b> ADMINISTRAZIO OROKORREKO LAGUNTZAILEA	1	D	J	
<b>ADMINISTRAZIO BEREZIAREN MAILA</b> <b>Azpimaila Teknikoa</b> <b>* Mota: Erdiko Teknikariak</b> GIZARTE LAGUNTZAILEA	1	B	J	36%
<b>Administratiboa</b> <b>* Mota: Laguntzailea</b> LIBURUTEGIKO LAGUNTZAILEA	1	D	J	40%
<b>Zerbitzu Bereziak</b> <b>*Mota: Ofizioetako Pertsonala</b> ZERBITZU ANITZETARAKO OFIZIALA	1	D	J	
GARBITZAILEA	1	E	J	

## 2002rako LANPOSTUEN ZERRENDA

### KARRERAKO FUNTZIONARIOEI ERRESERBATUTAKO LANPOSTUAK

Lanp. Izena	Eskala	Azpi eskala	Titulazioa	S. P	Dedik azioa	Taldea	Maila	Osag. Espez.	H.E	Derr. Data	Egoera	Best.
IDAZKARI-KONTUHARTZAILEA	Administ Orokorra	F.H.N .	P Zientziak edo Zuzen. Diplom.	C	%70 Berez .	B	23	10.031,00	4	91-02-06	Aktib.	Agrup .
ADMINISTRARI LAGUNTZAILEA	Administ Orokorra	LAGUN TZAIL	Eskola Graduata edo LH1	C	%100 Berez .	D	14	10.947,16	3	91-02-06	Aktib.	Funtz.
GIZARTE LAGUNTZAILEA	Administ Berezia	TEKN .	Diplomaduna	C	%36 Berez .	B	17	3.828,16	3	91-12-01	Aktib.	Funtz.
OFIZIALA	Administ Berezia	ZERB. BEREZ	Eskola Graduata edo LH1	C	%100 Berez .	D	16	12.544,98	2	91-02-06	Aktib.	Funtz.
LIBURUTEGIKO LAGUNTZAILEA	Administ Orokorra	LAGUN TZAIL	Eskola Graduata edo LH1	C	%40 Berez .	D	13	4.204,48	3	96-04-01	Aktib.	Funtz.
GARBITZAILEA	Administ Berezia	ZERB. BEREZ	Eskola Ziurtagiria	C	%100 Berez .	E	8	6.802,88	2	92-05-01	Aktib.	Funtz.

Izena	Soldata	Lan Lekuagatiko Osakina	Osakin Espezifikoa	Hirurtekoak	Besteak	Guztira
IDAZKARI- KONTUHARTZAILEA	587,05	389,17	716,50	148,81	58,37 Agrupazioa	1.899,90
ADMINISTRARI LAGUNTZAILEA	531,83	311,47	781,94	79,18		1.704,42
GIZARTE LAGUNTZAILEA	317,11	144,27	273,44	24,25	37,64%	759,07
LANETAKO OFIZIALA	531,82	359,37	896,07	63,24		1.850,50
LIBURUTEGIKO LAGUNTZAILEA	220,01	118,93	300,32	6,54	41,37%	645,80
GARBITZAILEA	385,05	149,33	485,92	18,84	79,31%	1.081,88

Proposamena aztertu eta eztabaidatu ondoren, aho batez onartua izan da.

#### **10.- ETXEZ ETXEKO LANGILE LANPOSTUA HORNITZEKO DEIALDIA**

Sagrario Luluaga Altuna Andrea, Etxez Etxeko Langile lanpostua betetzen zuenak, erretiroa hartu duenez, Lanpostu hori hornitzeko deialdia egiteko oinarriak aurkeztu dira, honela diotelarik:

“Deialdi honen xedea, Udal honetako lan edo zerbitzu jakineko iraupeneko eta lanaldi partzialeko Etxez Etxeko Laguntzaile lanpostua hornitzea da.

Baldintzak betetzen dituzten izangaiekin lan-poltsa bat osatuko da. Lan-poltsa horretan egoteak, datozen bi urtetan (aurreneko kontratazioa egiten denetik kontaktzen hasita) Etxez Etxeko Laguntzako Zerbitzuan egon daitezkeen

pertsonal beharrei erantzuteko kontratua izateko eskubidea emango du, hautaketa prozeduran lortutako puntuazioaren hurrenkerean.

## **EGINKIZUNAK**

Lanpostuaren eginkizunak honako hauek dira:

a) Laguntza pertsonala:

- Ohetik altxatu.
- Jarlekutik altxatu.
- Jantzi.
- Erantzi.
- Jaten lagundu.
- Norberaren garbitasuna.

b) Konpaini, elkarrizketa eta komunikazioa onuradunarekin.

c) Etxeko garbiketa, garbiketa sakonak egin gabe.

d) Ohea egin, bazkaria prestatu (agindutako dietaren arabera).

e) Erosketak egin (oinarrizko janari eta garbigaiena).

f) Oinarrizko zenbait jectio egin: pentsioa kobratu, errezetak egin, etxean konponketak egiteko tekniko bati deitu, ....)

g) Arropa garbitu.

h) Etxeko eskailerak igotzen edo jaisten lagundu, kanporako irtenaldi motzetan lagundu.

i) Norberaren arropa konpondu eta txukundu.

- j) Etxeko konponketa txikietarako laguntza (bonbila bat aldatu, apal bat jarri, ...)
- k) Sendagileak agindutako medikazio simple baten administrazioaren kontrola eta jarraipena.
- l) Hirugarren adineko beste laguntza-zerbitzu batzuen osagarri diren eta gizarte laguntzaileak agindutako eginkizunak.
- m) Ongizate Batzordeak agindutako beste edozein betebeharrak nahiz eta zehazteko egon, baldin eta etxez etxeko laguntzaileari badagokio.

## **IZANGAIEN BALDINTZAK**

Lanpostu hori eskuratzeko, ondoko baldintza hauek bete behar dira:

- a) Lizartzan erroldatuta egotea.
- b) 18 urte beteta edukitzea.
- c) Euskara jakitea.

## **INSTANTZIAK**

Instantzia deialdi honetan parte hartzeko onarpena eskatuz, Lizartzako Udaleko Alkate Jaunari zuzenduko zaio.

Baloratuko diren merezimenduei dagozkien datuak jarri behar dira eta behar bezala egiaztatzen ez direnak, ez dira baloratuko. Merezimenduen agiriak jatorrizko dokumentazioa edota konpulsaturiko kopiaren bitartez aurkeztuko dira.

Instantziak behar bezala beteta eta izenpetuta Lizartzako Udaleko Erregistro orokorrean aurkeztuko dira uztailaren 30a bitartean.

Instantziarekin batera Nortasun Agiriaren edo, atzerritarra izanez gero, balio bereko agiriaren fotokopia aurkeztu behar da.

### **DEIALDIAREN FASEAK**

- a) Lanpostuari dagokion gaiei buruzko azterketa teoriko-praktikoa.
- b) Merituen balorazioa.
- c) Curriculum-arekin zerikusia duen elkarrizketa pertsonala ere egin ahal izango da.

### **MERITUAK**

Eskaeran alegatu eta behar bezala egiaztatuak diren merituen baloratuko dira, zerbitzuak eman diren Administrazioak edo enpresak luzatutako ziurtagiri egokiak aurkeztuz.

- a) Edozein Herri Administrazioan Etxez-Etxeko Laguntzaile lanetan emaniko zerbitzuak: hileko 0,50 puntu, gehienez 5 puntu baloratuz.
- b) Antzeko lanpostuetan izandako esperientzia profesionala ere kontutan izango da: hileko 0,15 puntu, gehienez 3 puntu baloratuz.
- c) Klinika laguntzailea, edota lanpostuarekin zerikusirik duen titulazio ofizialaren jabe izatea: gehienez 2 puntu.
- d) Gutxienez 40 orduko iraupena duten eta lanpostuarekin zerikusirik duten ikastaro bakoitzagatik 0,15, gehienez 2 puntu osatu arte.

B gida baimena edo parekoa izateak, froga teoriko-praktikoaren eta merituen batuketaren ondoren gerta daiteken puntuaketaren berdintasuna hautsiko du.

Curriculum-arekin zerikusia duen elkarrizketa pertsonala ere egin ahal izango du epaimahaiak.

Etxez Etxeko Laguntzaile lanpostua hornitzeko deialdirako Oinarriak, aztertu eta eztabaidatu ondoren, aho batez onartuak izan dira.

## **11.- ALKATETZAREN DEKRETUAK**

### **FELIPE AGIRRE ZABALA**

Bere jabetzakoa den bordaren estalkia egoera tamalgarrian aurkezten dela eta estalkia aldatzeko baimena eman zaio.

### **DOMINICA MENDIBOURE**

Dominica Mendiboure andreak, 2002ko Apirilaren 4an eskaria aurkeztu du; horren bidez, aipatu eskatzaileak, hala balegokio, Lizartzako Arau Subsidiarioetako U-1 aldean kokatuta dagoen IRUNCICELAY izeneko terrenoaren, eta 780 m<sup>2</sup> dituenaren, bereizketa egiteko dagokion udal-baimena ematea eskatzen du.

Deskribatutako egitatezko suposamendu hori ez da sartzen, 1/1992 Errege Dekretu Legearen 242. artikuluan aurreikusitakoaren arabera (horren bidez Lurzoruaren eta Hiri Antolamenduaren Erregimenaren Legearen eta Hirigintza Disziplinen Erregelamenduaren 1. artikulua gaineko Testu Bateratua onartzen da), dagokion udal-baimenaren aurretik izan beharreko egitateetan.

Eta hori horrela da, izan ere, badirudi egin nahi den bereizketa ezin dela hirigintza-partzelario gisa jo; iharduketa horrek ez du eskatzen soilik lurzati baten zatiketa edo bereizketa hutsa, gerora begira hirigune baten sorrera eman dezake, ordea.

Esandakoaren arabera, bereizketa hori egiteko BAIMENA EMATEN da.

## AGURTZANE BALERDI

Elbarrena Kaleko 12. etxerako sarbideko eskaileretan ranpa egiteko baimena eman da.

## JOSE INAZIO GALARRAGA

IKUSIRIK.- JOSE IGNAZIO GALARRAGA URRETABIZKAIA Jaunak, BAZURKA SYSTEMS FOR LANDFILLING S.L. sozietatearen izenean, 2002ko apirilaren 3an aurkeztutako, U-1 Sektore Industrialean, Poligonoa garatzeko kota handitzeko, lur emtaketa eta bete lana egiteko eginiko obratako baimen eskaera.

IKUSIRIK.- Teknikariek eginiko txostenak.

Horren arabera, zera

ERABAKI DUT: JOSE IGNAZIO GALARRAGA URRETABIZKAIA Jaunak, BAZURKA SYSTEMN FOR LANDFILLING S.L. sozietatearen izenean, 2002ko apirilaren 3an aurkeztutako, U-1 Sektore Industrialean, Poligonoa garatzeko kota handitzeko, lur metaketa eta bete lana egiteko aurkeztu duen eskariaren arabera, Obretako baimena ematea.

## BALDINTZAK

- Bete lana egiteko, hau 30 cm-tako tongadaka egingo da, bakoitza behar bezala konpaktatuko delarik.
- Hiritaratze egitasmoan bete-lan hau nola egin den eta orokorrean zer erresistentzi mekaniko daukan azaldu beharko da, espreski bete-lanari dagokion atala azaldu beharko delarik.



- 1.- Ebazpen hau, hirugarren baten jabetza errespetatu eta horren kalterik gabe luzatzen da.
- 2.- Indarrean dauden lege eta araudiek ezarritako segurtasun neurri guztiak bete beharko dira.
- 3.- Baimentzen diren obren inguruan, komunikazio hari, ur sare edo beste inolako zerbitzu publiko instalakuntzarik egongo balitz, obren berri eman beharko da, Zerbitzu Publikoari kalteek aurrezaintzeko; obregatik, kalterik gertatuko alitz, ukitutako hirigintz elementuek berregin beharko dira, tokatzen diren gastuak ordainduaz.

Inolako aldaketarik sartu behar balitz, aurrezko adostasuna beharko du.

#### GURRUTXAGA ANAIK

IKUSIRIK.- GURRUTXAGA ANAIK, 2002ko martxoaren 15ean aurkeztutako Txarama auzoan famili bikoitzeko etxea egiteko aurkeztu duen eskariaren arabera, obretako baimen eskaera

IKUSIRIK.- Teknikariek eginiko txostenak.

Horren arabera, zera

ERABAKI DUT: GURRUTXAGA ANAIK, 2002ko martxoaren 15ean aurkeztutako, Txarama auzoan famili bikoitzeko etxea egiteko aurkeztu duen eskariaren arabera, Obretako baimena luzatzea.

#### BALDINTZAK

- Estalkira irisgarritasuna ahalbideratzen duen irekidura egin behar dela gogorarazten da.

- 1.- Ebazpen hau, hirugarren baten jabetza errespetatu eta horren kalterik gabe luzatzen da.
- 2.- Indarrean dauden lege eta araudiek ezarritako segurtasun neurri guztiak bete beharko dira.
- 3.- Baimentzen diren obren inguruan, komunikazio hari, ur sare edo beste inolako zerbitzu publiko instalakuntzarik egongo balitz, obren berri eman beharko da, Zerbitzu Publikoari kalteek aurrezaintzeko; obregatik, kalterik gertatuko balitz, ukitutako hirigintz elementuek berregin beharko dira, tokatzen diren gastuak ordainduaz.

Inolako aldaketarik sartu behar balitz, aurrezko adostasuna beharko du.

### CASTOR OLAETXEA GARAIKOETXEA

Castor Olaetxea Garaikoetxea Jaunak, 2002ko Apirilaren 25ean eskaria aurkeztu du; horren bidez, aipatu eskatzaileak, hala balegokio, Lizartzako Arau Subsidiarioetako U-1 aldean kokatuta dagoen eta 552 m<sup>2</sup> dituenaren, bereizketa egiteko dagokion udal-baimena ematea eskatzen du.

Deskribatutako egitatezko suposamendu hori ez da sartzen, 1/1992 Errege Dekretu Legearen 242. artikuluan aurreikusitakoaren arabera (horren bidez Lurzoruaren eta Hiri Antolamenduaren Erregimenaren Legearen eta Hirigintza Disziplinarene Erregelamenduaren 1. artikulua gaineko Testu Bateratua onartzen da), dagokion udal-baimenaren aurretik izan beharreko egitateetan.

Eta hori horrela da, izan ere, badirudi egin nahi den bereizketa ezin dela hirigintza-partzelario gisa jo; iharduketa horrek ez du eskatzen soilik lurzati baten zatiketa edo bereizketa hutsa, gerora begira hirigune baten sorrera eman dezake, ordea.

Esandakoaren arabera, bereizketa hori egiteko BAIMENA EMATEN da.

#### INES OLAETXEA KARRERA

Kale Nagusia, 17an, Fatxadako irekidura handitzeko BAIMENA eman da, baldintza honekin:

Egitasmoa bat dator Lizartzako NNSS-tako arauekin. Hala ere, CN-130 errepidearen parean dagoenez, Gipuzkoako Foru Aldundian baimena eskatu beharko da.

#### FRANCISCO PARDIÑAS

Kale Nagusia, 35-ean sukaldeko azulejoak aldatzeko BAIMENA eman da, baldintza honekin:

Behin obrak hasi ondoren, hauek ez badira burutzen emandako informazioaren arabera eta fatxadan, egitura edo instalakuntza nagusietan eragina badute, arkitekto batk sinaturiko eta Elkargo Ofizialak bisatutako proiektua eskatuko da obra baimentzeko.

#### ANGEL SANTOS – LURDES LASA

**Obra: Torre Etxearen Birreraikitze Egitasmoa**  
**Espediente-Zenbakia: 290/2002-06-17**

Eskabidea eta teknikariaren txostena ikusirik, eskatzailearen biamenari dagokionez, honako hau ERABAKI DUT:

Espediente honetako eskatzaileari obra handia egiteko baimena: EMATEA.

Obra egiteko baimenak balioa izateko, baldintza hauek bete behar dira:

- 1.- Obrak hasi aurretik, beharrezko izango da Arkitekto Elkargoak ikusonetsitako Gauzatze egitasmoa aurkeztea.
- 2.- Estalkira irisgarritasuna ahalbideratzen duen irekidura egin behar dela jakinarazten da.
- 3.- Obrari dagozkion udal-tasak ordainduko dira.
- 4.- Eraikuntzako ordenantzen arabera egingo da obra.

#### Baldintza orokorrak

- 1.- Jabetza-eskubidea kontuan hartu gabe ematen da baimena. Obra egin bitartean inor kaltetuz gero, baimenduna ezingo da baimenaz baliatu eragindako kalteen erantzunkizun zibila alderatzeko edo bere gain ez hartzeko.
- 2.- Indarrean dauden lege eta ordenantzen araberako segurtasun-enurriak bete behar dira.
- 3.- Baimentzen diren obren inguruan, komunikazio hari, ur sare edo beste inolako zerbitzu publiko instalakuntzarik egongo balitz, obren berri eman beharko da, Zerbitzu Publikoari kalteek aurrezaintzeko; obregatik, kalterik gertatuko balitz, ukitutako hirigintz elementuek berregin beharko dira, tokatzen diren gastuak ordainduaz.
- 4.- Ebazpen hau luzatzeak ez du ematen inolaz ere, IGOKA behar duten aktibitate edo estabelzimenduen irekiera baimenik.
- 5.- Obrak, aurkeztu behar den ejekuzioa proiektuaren arabera burutuko dira, eta hauek hasi aurretik, obrako Zuzendaritza Teknikoaren izendapena egin beharko da. Obren luzapena, 12 hilabetetan irizten da.

Inolako aldaketari ksartu behar balitz, aurrezko adostasuna beharko du.

6.- Obrak bukatu ondoren eraikuntzaren lehen erabilpena aurkeztu behar da honako dokumentazioarekin:

\*Obra amaieraren ziurtagiria, obraren benetazko kostoa adierazita.

\* Fatxaden argazkia 13x18 neurrian atzetik arkitektoak sinatuta.

\* Kokapen planoak hiri zerbitzuen hartuneak adierazita.

\* Obra berri aitortzearen eskrituraren kopia xumea.

\* Iberdrolaren Buletina.

\* Hiri Zergabilketan alta berria (U-4 orria).

### ANTTON AZPIROZ

Obra: ETXE ONDOKO BILTEGIAREN ESTALKIA ALDATU

Espediente Zkia: 308/2002-06-17

Eskabidea eta teknikariaren txostena ikusirik, eskatzailearen baimenari dagokionez, honako hau ERABAKI DUT:

Espediente honetako eskatzaileari obra txikia egiteko baimena ematea.

Obra egiteko baimenak balioa izateko, baldintza hauek bete behar dira:

- 1.- Txabolaren estalkia aldatzea, obra xumea dela eta ez nagusia esan daiteke eta beraz, ez da behar izango arkitekto batek sinatutako egitasmorik.
- 2.- Egitura berria egin behar baldin bada, arkitekto batk sinatutako eta Arkitekto Elkargoak ikusonetsitako egitasmoa aurkeztu beharko da, baimen berria eskatuaz.

## LORENTXO GOIKOETXEAUNDIA

Basaitzene Berri etxearen Garajeko sarrerako eremua portxe batez estaltzeko baimena eman da, ondorengo baldintzapean:

Estalkiaren egirua “altzairu” baten antzera dagoeneko han dagoen hormigoizko egituraren gainean jarriko da.

Obra egiterakoan, estalkiaren dimentsioak ikustaldian adierazi bezala mantenduko dira eta estaldura, Arau Subsidiarioen 19. artikularen arabera, teila keramikozkoa edo antzeko materialekoa izango da.

Behin obrak hasi ondoren, hauek ez badira burutzen emandako informazioaren arabera eta fatxadetan, egitura edo instalakuntza nagusietan eragina badute, arkitekto batek sinaturiko eta Elkargo Ofizialak bisatutako proiektua eskatuko da obra baimentzeko.

## ARANTXA ARROSPIDE

Zubiaurre Etxearen behean ezkerrean Terrazari baldosa aldatu eta beheko garajeko atea aluminiozkoa jartzeko baimena, ondorengo baldintzapean:

Jarri nahi den aluminiozko ate berria, egun dauden ateen antzekoa izango da, estetikoki itsura orokorra ona izan dadin.

Terraza, tela asfaltikoaz behar bezala inpermeabilizatuko da.

Behin obrak hasi ondoren, hauek ez badira burutzen emandako informazioaren arabera eta fatxadetan, egitura edo instalakuntza nagusietan eragina badute, arkitekto batek sinaturiko eta Elkargo Ofizialak bisatutako proiektua eskatuko da obra baimentzeko.

## **11.- IDAZKARI-KONTUHARTZAILEAREN ORDEZKAPENA**

Idazkari-Kontuhartzaileak, ebaketa bat dela eta, baja hartzen duenez, bere ordezkapenerako, Udaleko Administrari Laguntzailea den, Ima Garaikoetxea Garmendia izendatzea, aho batez erabaki da.

Eta hitzegiteko beste gairik ez dagoenez, Alkateak, Batzarra amaitutzat eman du, gaueko hamarrak direnean.